

2021. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2020ko irailaren 25ean izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2020/10/06. 192. zk.

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Udal honek ordenantza honen arabera ezarri eta eskatzen du udalerri osoan Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko 7/1989 Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz.

II. IZAERA ETA ZERGA EGITATEA

2. artikulua.

1.- Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga zuzeneko tributua da eta bide publikoetatik zehar ibiltzeko gai diren edozein mota zein kategoriatako trakzio mekanikozko ibilgailuen titulartasuna zergapetzen ditu, Zirkulazio Baimenean agertzen den helbidea udalerri honetakoa denean.

2.- Zerga egitatea izango da bide publikoetan ibiltzekoak diren trakzio mekanikodun ibilgailuen titulartasuna, ibilgailua edozein klase edo kategoriatakoa izanda ere.

3.- Zirkulaziorako gai den ibilgailutzat ulertuko da, dagokion erregistro publikoan matrikulatua izan dena, beti ere erregistroetan bajarik eman ez bada. Zerga honen ondorioetarako, zirkulaziorako moduko ibilgailutzat hartuko dira aldi baterako baimenak eta matrikula turistikoak dauzkaten ibilgailuak.

III. ZERGA ORDAINDU BEHAR EZ IZATEA

3. artikulua.

Ez dute zerga ordaindu behar izango:

- a) Modeloaren antzintasuna dela-eta erregistroan baja emandako ibilgailuak izanda, salbuespenez zirkulatzeko baimenduak izan leitekezan ibilgailuak, era horretako ibilgailuetarako baino ez diren erakusketa, lehiaketa edo lasterketetan parte hartzeko.
- b) Trakzio mekanikodun atoiak eta erdi-atoiak, karga erabilgarria 750 kg.tik gorakoa ez bada.

IV. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

4. artikulua.

1.- Zerga ordaintzetik **salbuetsita** dagoz hauek:

a) Estatuaren, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Lurralde Historikoaren eta tokiko erakundeen ibilgailu ofizialak, herritarren defentsarako edo segurtasunerako badira.

b) Ordezkaritza diplomatikoen, konsuladuetako bulegoen, diplomazia agenteen eta konsuladuko funtzionarioen ibilgailuak, beti be, halan direla egiaztatuta. Horreek guztiak herrialde bakoitzekoak izango dira, kanpora begira identifikatuta joango dira eta hareen maila eta zabalkundeak egokiak izango dira.

Era berean, Espainiako estatuan egoitza edo bulegoa daukien nazioarteko erakundeen eta hareen funtzionarioen edo diplomazia-estadua daukien kideen ibilgailuak.

c) Nazioarteko itunen edo hitzarmenen bidez salbuetsita dagozan ibilgailuak.

d) Anbulantziak eta osasun laguntasunarekin lotura zuzena daukien gainerako ibilgailuak, edo arauetan ezarritakoak diren erakunde antzekoen ibilgailuak.

e) Mugitzeko eragozpenak dauzkaten pertsonentzako ibilgailuak, abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Ibilgailuen Araudi Orokorreko II. eranskineko A letran adierazitakoak, ezindu baten izenean matrikulatuta dagozanean.

Era berean, salbuetsita dagoz ezindu baten izenean matrikulatutako 14 zerga zalditik beherako ibilgailuak, ezinduak erabiltzeko baino ez direnak. Salbuespen hau inguruabar horreek hala irauten dabenean bitartean aplikatuko da, eta aplikatu be, urrituek eurek gidatzen dabean ibilgailuei zein eurek garraiatzeko erabiltzen direnei aplikatuko jake.

Aurreko paragrafo bietan ezarritako salbuespenak ezin dira aplikatu batera, hau da, onuradun bati ez jake bat baino besterik aplikatuko, ibilgailu bat baino gehiago euki arren.

Letra honetan xedatutakoaren ondoretarako, hauexek hartuko dira pertsona ezindutzat:

a') %33 - 65 bitarteko minusbalio-gradua onartuta daukiela mobiteko gaitasuna murriztuta daukien pertsonak; halakotzat joko dira minusbalio-gradua aintzatetsi, adierazi eta kalifikatzeari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren II. eranskineko baremoko A, B edo C letratan adierazitako egoeretako batean dagozanak eta baremo horretako D, E, F, G edo H letran 7 puntu edo gehiago daukiezanak.

b') %65eko minusbalio-gradua edo handiagoa daukien pertsonak

Aurreko a') eta b') letratan sartuta dauden pertsonen artean, 1971/1999 Errege Dekretuko II. eranskin gisa agertzen den baremoan A letrako mugitu ezintasunaren egoeran

daudenei, ez zaie aplikatuko 14 zerga zaldien muga, baldin eta ibilgailua gurpil-aulkiekin erabiltzeko egokituta badago.

Salbuespenak aplikatu ahal izateko, interesdunek eskatu egin beharko dabe, eta eskabidean ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren arrazoia adierazi behar dabe. Salbuespena adierazitakoan, Udal Administrazioak hori frogetan dauen agiria emango dau.

Interesatuak urritasunaren eta, behar danean, mobidu ezintasunaren ziurtagiria (erakunde eskudunak emana) aurkeztu behar dau eta ibilgailua zertarako erabiltzen dauen probatu behar deutso udalari.

Holan, eskariarekin batera honako honeek aurkeztu beharko dauz:

- Ibilgailuaren zirkulazioko baimenaren fotokopia.
- Minusbalio-gradua edo, kasuan, mobiteko gaitasuna murriztuta daukala egiaztatzen duen agiria, Bizkaiko Foru Aldundiaren organo eskudunak emandakoa; ez da nahikoa izango ezintasunak baloratzeko taldeek egindako erispen tekniko-fakultatiboa aurkeztea.
- Zinpeko aitorpena, ibilgailua minusbaliadunak ez beste inork erabiliko dauela adierazotekoa.
- Gidabaimenaren fotokopia.
- Minusbaliaduna bera gidaria ez danean, ibilgailuaren gidaria nor dan edo nor izango den adierazi beharko du, eta bere gidabaimenaren fotokopia aurkeztu.
- Ibilgailuaren zerga zorrik ez daukanaren egiaztagiria.

Dagoaneko erroldan dagozan ibilgailuen kasuan salbuespena eskatzeko epea urtarilaren 1etik otsailaren 15era bitartekoa izango da, eta beti be zerga-zorra sortu dan egunean salbuespenerako betekizunak bete ezkerro eta aurreko urteetako zerga kuotak ordainduta euki ezkerro, urteko erroldan bertan aplikatuko da salbuespena. Epe horretatik kanpo aurkeztutako eskaria izan ezkerro, salbuespena onartu arren, eskaria egin dan urtearen hurrengo ekitaldian sortuko dauz ondorioak eta ez dau eukiko atzera eraginik.

Ibilgailu berrien kasuan matrikuletan dan egunetik 10 eguneko epean aurkeztu ezkerro eskaria eta beti be zerga-zorra sortu dan egunean salbuespenerako betekizunak bete ezkerro, salbuespena onartu ahal izango da eta behin-betiko kitapenaz itzuliko da autolikidazinoz ordaindutakoa.

Salbuespena titular baten ibilgailu batentzat bakarrik emongo da.

g) Nekazaritza Ikuskapeneko Kartilan agertzen diran traktoreak, atoiak, erdi-atoiak eta makineria.

Salbuespen hau aplikatu ahal izateko, interesdunek eskaria egin behar dabe ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta ezinbesteko agiria aurkeztuta. Udal Administrazioak salbuespena onartu eta gero, berau egiaztetako agiria emango deustso interesdunari.

Dagoaneko erroldan dagozan ibilgailuen kasuan salbuespena eskatzeko epea urtarrilaren 1etik zezeilaren 15era bitartekoa izango da, eta beti be zerga-zorra sortu dan egunean salbuespenerako betekizunak bete ezker, urteko erroldan bertan aplikatuko da salbuespena. Epe horretatik kanpo aurkeztutako eskaria izan ezker, salbuespena onartu arren, eskaria egin dan urtearen hurrengo ekitaldian sortuko dauz ondorioak eta ez dau eukiko atzera eraginik.

Ibilgailu berrien kasuan matrikuletan dan egunetik 10 eguneko epean aurkeztu ezker eskaria eta beti be zerga-zorra sortu dan egunean salbuespenerako betekizunak bete ezker, salbuespena onartu ahal izango da eta behin-betiko kitapenaz itzuliko da autolikidazinoz ordaindutakoa.

2. Zerga kuotaren **hobari** honeek egingo dira:

a) Familia ugaria tituludun kide baten titularidadeko bost plaza edo gehiagoko ibilgailuari:

- Kategoria orokorreko familia ugariko kideari: **% 50ko hobaria**

- Kategoria bereziko familia ugariko kideari: **% 75eko hobaria**

Hobaria aplikatu ahal izateko, interesdunek berariaz eskatu egin beharko dabe, eta eskabidean ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta Bizkaiko Foru Aldundiak emondako Familia Ugariaren titulua aurkeztu beharko dauz.

Derrigorrezkoa da zerga sorten dan egunean familia ugarikoa izatea.

Dagoeneko erroldan dagozan ibilgailuen kasuan hobaria eskatzeko epea urtarrilaren 1etik otsailaren 15era bitartekoa izango da, eta beti be zerga-zorra sortu dan egunean hobarirako betekizunak bete ezker eta aurreko urteetako zerga kuotak ordainduta euki ezker, urteko erroldan bertan aplikatuko da hobaria. Epe horretatik kanpo aurkeztutako eskaria izan ezker, hobaria onartu arren, eskaria egin dan urtearen hurrengo ekitaldian sortuko dauz ondorioak eta ez dau eukiko atzera eraginik.

b) Kuotaren **%75eko hobaria** eukiko dabe motor elektrikoko edota isuri bako ibilgailuak.

c) Kuotaren **%35eko hobaria** motor hibridoa daukien ibilgailuak edo erragaitzat gas naturala edo petroliotik likidotutako gasak erabiltzen dabezan ibilgailuak matrikulatzen direnetik lau urtetan.

b) eta c) ataletako hobariak eukitzeko, interesdunek eskatu egin beharko dabe, eta eskabidean ibilgailuaren ezaugarriak, matrikula eta onuraren arrazoia erakutsi behar dabez.

Dagoeneko erroldan dagozan ibilgailuen kasuan hobaria eskatzeko epea urtarilaren 1etik otsailaren 15era bitartekoa izango da, eta beti be zerga-zorra sortu dan egunean hobarirako betekizunak bete ezkerro eta aurreko urteetako zerga kuotak ordainduta euki ezkerro, urteko erroldan bertan aplikatuko da hobaria. Epe horretatik kanpo aurkeztutako eskaria izan ezkerro, hobaria onartu arren, eskaria egin dan urtearen hurrengo ekitaldian sortuko dauz ondorioak eta ez dau eukiko atzera eraginik.

Ibilgailu barrien kasuan matrikulatzen dan egunetik 10 eguneko epean aurkeztu ezkerro eskaria eta beti be zerga-zorra sortu dan egunean hobarirako betekizunak bete ezkerro, hobaria onartu ahal izango da eta behin-betiko kitapenaz itzuliko da autolikidazinoz ordaindutakoa.

d) Kuotaren **%100eko** hobaria izango dute indarrean dagoen Ibilgailu Historikoen Araudiaren arabera historiko gisa sailkatuta dauden ibilgailuek, betiere, horrela agertzen badira Trafikoko Probintzia Buruzagitzako Ibilgailu Historikoen Erregistroan.

Hobari hau aplikatu ahal izateko ibilgailuen titularrek eskatu egin beharko dute eta, horretarako, Udalak administratiboki onartuko duen eredia erabili beharko dute eta eskabidearekin batera honako agiriak aurkeztu beharko dira:

- NAN edo IFK
- Ibilgailuaren zirkulazio baimenaren fotokopia
- Ibilgailua historikoa dela egiaztatzeko, horretarako eskumena duen administrazioak igorritako dokumentua eta Ibilgailu Historikoen Erregistroko inskripzioa.

Dagoeneko erroldan dauden ibilgailuen kasuan hobaria eskatzeko epea urtarilaren 1etik otsailaren 15era bitartekoa izango da, eta beti be zerga-zorra sortu dan egunean hobarirako betekizunak betez gero eta aurreko urteetako zerga kuotak ordainduta edukiz gero, urteko erroldan bertan aplikatuko da hobaria. Epe horretatik kanpo aurkeztutako eskaria izanez gero, hobaria onartu arren, eskaria egin den urtearen hurrengo ekitaldian sortuko ditu ondorioak eta ez du edukiko atzera eraginik.

V. SUBJEKTU PASIBOAK

5. artikulua.

Zerga honen subjektu pasiboak dira tributuen Foru Arau Orokorraren 34. artikuluan aitatzen diren erakundeak eta pertsona fisikoak edo juridikoak; horretarako, horreen izenean egon behar dau ibilgailu zirkulazioko baimenak.

Urte bakoitzean sei hilabetetik gora atzerrian bizi diren subjektu pasiboek Espainiako lurraldean helbideratutako ordezkari bat izendatu beharko dabe, udal ogasunaz izan leitekezan hartu-emonetarako.

VI. TRIBUTU KUOTA

6. artikulua.

1.- Zerga tarifa taula honen arabera eskatuko da zerga:

	2021 (€)
A) Turismoak:	
8 zerga-zaldi baino gutxiago	26,57
8-11,99 zerga-zaldi	71,76
12-13,99 zerga-zaldi	126,56
14-15,99 zerga-zaldi	177,18
16-19,99 zerga-zaldi	227,81
20 zerga-zaldi baino gehiago	278,42
B) Autobusak:	
21 plazatik beherakoak	175,41
21 plazatik 50era bitartekoak	249,83
50 plazatik aurrerakoak	312,29
C) Kamioiak:	
Zama erabilgarriko 1.000 kg.tik beherakoak	89,04
1.000 kg-tik 2.999 kg-ra bitarteko zama erabilgarrikoak	175,41
3.000 kg-tik 9.999 kg-ra bitarteko zama erabilgarrikoak	249,83
9.999 kg.tik aurrerako zama erabilgarrikoak	312,29
D) Traktoreak:	
16 zerga-zaldi baino gutxiagokoak	37,21
16-25 zerga-zaldi bitartekoak	58,47
25 zerga-zalditik gorakoak	175,41
E) Trakzio mekanikozko ibilgailuek daramatzaten atoi eta erdi-atoiak:	
Zama erabilgarriko 1.000 kg.tik beherakoak	37,21
1.000 kg-tik 2.999 kg-ra bitarteko zama erabilgarrikoak	58,47
2.999 kg.tik aurrerako zama erabilgarrikoak	175,41
F) Gainerako ibilgailuak:	

Ziklomotorrak	10,57
125 z.k.rainoko motozikletak	10,57
125 z.k.tik 250 z.k.ra bitarteko motozikletak	15,95
250 z.k.tik 500 z.k.ra bitarteko motozikletak	31,90
500 z.k.tik 1.000 z.k.ra bitarteko motozikletak	73,99
1.000 z.k.tik aurrerako motozikletak	142,87

2. Ibilgailu mota zehazteko, arauetan ezarritakoa bete beharko da, eta gainera arauak hauek hartu beharko dira kontuan:

- a) Furgonetatzat ondokoak joko dira: personak eta gauzak batera garraiatu ahal izateko moldatutako turismo-ibilgailuak, hainbat jesarleku eta kristal kendu jakezanak, ateen neurriak edota kokalekua aldatu, eta bestelako aldaketak egin jakezanak, baina jatorrizko ibilgailuaren modeloaren ezaugarriak funtsean aldatu barik.

Furgonetakaitik, turismoak baliran moduan ordainduko da Zerga, euren zerga-potentziaren arabera, ondoko kasuetan izan ezean:

- Ibilgailua bederatzi pertsona baino gehiago, gidaria barru, garraiatzeko gaituta badago, Zergak autobusa balitz lez kargauko dau.
 - Ibilgailuak 525 kg-tik gorako zama erabilgarria garraiatzeko baimena badauka, Zergak kamioia balitzen moduan kargatuko dau.
- b) Zerga honen ondoreetarako, moto-gurdiak motozikletatzat joko dira eta, beraz, euren zilindradearen edukierearen arabera ordainduko da Zerga.
- c) Ibilgailu artikuladuei jagokenez, Zergak aldi berean eta bereiztuta kargauko dauz arraste-indarra daukan ibilgailuak eta harek herrestan daroazan atoiak eta erdi atoiak.
- d) Edukierea dala-eta matrikulau beharrik ez daukien ziklomotorrak, atoiak eta erdi-atoiak zirkuletako gai diran ibilgailutzat joko dira Industria Ordezkaritzeak horren ziurtagiria emoten dauenetik, edo ibilgailua zirkuletan hasten denetik, kasuan kasu.
- e) Makina autopropulsatuakaitik, barriz, trakzio mekanikodun beste ibilgailu batek gainean edo herrestan eroan barik bide publikotik ibili daitekezan makinakaitik, traktoreei jagokezan tarifak kobratuko dira.

Edozelan be, esandako tarifen D hizkiko "traktoreak" izendapenaren barruan, "trakto-kamioiak" eta "obra eta zerbitzuetako traktoreak" sartzen dira.

- f) Quad-ak, beren ezaugarri teknikoen arabera, automobil, ibilgailu berezi edo motor-bizikletak bezala ordainduko dute.
- g) Autokarabanek turismo moduan tributatuko dabe.
- h) Zaldi fiskaletan adierazitako potentzia fiskala abenduaren 23ko 2822/98 Erreal Dekretuaren bidez onesten den Ibilgailuen Erregelamenduaren 11.20 artikuluan xedatutakoaren arabera ezarriko da.

VII. ZERGALDIA

7. artikulua.

1- Zergaldia bat dator urte naturalagaz, ibilgailua lehenengoz erosten danean edo baja ematen denean izan ezik. Horreetan kasuetan, ibilgailua erosten dan egunean edo baja Trafikoko Buruzagitzan emoten dan egunean hasiko da zergaldia, hurrenez hurren.

2- Zergaldiaren lehen egunean sortuko da zerga.

3- Zergaren kuotaren zenbatekoa hile naturalen arabera hainbanatuko da, ibilgailuaren lehenengo eskuraketearen edo behin betiko bajearen kasuetan, eta ibilgailuari alta edo baja emoten jakon eguneko hilea be kontuan hartuko da.

Era berean, ibilgailua ostu edo lapurtzeagatik ibilgailuari aldi baterako baja emoten bajako, haren kuota arestian azaldutako moduan hainbanatuko da, jagokon erregistro publikoan aldi baterako baja gertetan den unetik.

VIII. KUDEAKETA

8. artikulua.

1- Ibilgailuaren zirkulazioko baimenean Bermeoko helbidea daukien ibilgailuak izango dira Udalarri jagokozan zergen gestioan emaniko datuen kudeaketa, kitapena, bilketa eta berrikuspenaren objektuak.

2- Ibilgailuen errolda Trafikoko Buruzagitzak edota ibilgailuen titularrek eurek emandako datuekin eguneratuko da urteko errolda fiskalaren oinarria izan daiten.

3- Udalerriko helbideei buruz egon daitekezan arazo edota datu ezberdinentzako irtenbidea *Kudeaketa, diru-bilketa eta ikuskapenari buruzko zerga ordenantzako 24. eta 25. artikuluetan xedatutakoa* izango da.

4- Urteko lehenengo egunean ibilgailuen erroldan dagozan ibilgailuen zergea erroldazko erreziboz kitatuko da urteko tributuen egutegiaren arabera.

5- Baja kasuan, behin urteko zergea ordainduta, 6. artikuluko 3. atalean xedatuta dagoen hainbanaketa egingo da eta itzuli beharrekoa itzuliko da.

9. artikulua.

1- Ibilgailua lehenengoz erosten denean, Trafikoko Buruzagitzan matrikulatu aurretik, zerga autolikidazio bidez ordainduko da ordenantzako 7. artikuluko 3. atalean xedatuta dagoen hainbanaketa eginda.

2- Autolikidaziorako agiri hauek aurkeztuko dira Berh@z bulegoan:

- a) Gidatzeko baimena.
- b) Ezaugarri teknikoen egiaztagiria.
- c) NAN edo IFK.

3- Autolikidazinoaren zerga zenbatekoa ordaintzeko epea aurkezten denetik 10 egunekoa izango da. Epean ez ordaintzeak Derrigorrezko Bilketako prozeduraren arabera kobratzea ekarriko dau.

10. artikulua.

Aitorpen-kitapenak egiaztatu beharko dira eta behin behineko izaera izango dute behin betiko kitapeneko kuotaren kontura egindako ordainketak kontuan hartuta.

11. artikulua.

Udal administrazioak zergaren kitapena egiteko beharrezkoak diren beste dokumentu batzuk eskatu ahalko dizkie interesdunei 30 eguneko epean emateko, interesdunak eskatuta epea beste 15 egunetan luza daitekeena. Dokumentu horiek aitorpena egiaztatu eta kitapena behin betiko ezartzeko beharrezkoak direnez, egindako eskakizunei aipatutako epeen barruan kasu egiten ez dietenek dagozkien zerga-urraketa eta zigorrei aurre egin beharko diete. Agiri horiek interesdunak bere onurara frogatzeko bidea besterik ez badira, errekerimendua ez betetzearen ondorioa izango da kitapena bidaltzea, alegaturiko eta ez justifikaturiko egoerak kontuan hartu gabe.

12. artikulua.

Egiaztapen egokiak eginda, behin betiko kuota behin behinean ordaindutakoa baino txikiago zein handiagoa balitz, udal administrazioak zergadunei behin betiko kitapena oso-osorik jakinaraziko die, ordaintzeko epeak eta bidezko helegiteak adierazita.

13. artikulua.

1.- Udalak adierazitako epean aitorpen-likidaziorik egin ez duten zergapeko egitateak atzemango balitu, interesdunei aitorpen-likidazioa egiteko aginduko die, eragindako zerga arau-hausteei eta, hala badagokio, sortzen diren zigorrei kalterik egin gabe.

2.- Nolanahi ere, ofizioz espedientea ireki ahal izango du udal administrazioak bere esku dagoen informazioarekin, dagokion behin-behineko, osagarri edo behin betiko likidazioa igorrita, ordaintzeko epeak eta jar daitezkeen errekurtsioak zeintzuk diren adierazita, aplikatu daitezkeen zigorrak eta arau-hausteen kalte barik.